Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

355

AGINDUA, 2010eko abenduaren 22koa, Kulturako sailburuarena, 2010-2011 Gabon-kanpainan saltzen jarritako kultura-bonuen kopurua handitzeko dena.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Euskadiko ekonomia suspertzera bideratutako ekintzak bultzatzeko proiektuaren baitan (Eusko Jaurlaritza), ekoizpen artistiko eta kulturalaren merkatua dinamizatzeko ekimen bat jarri zen martxan 2009an, eta horretarako, 2009-2010 Gabon-kanpainan zehar Euskal Autonomia Erkidegoan kultura-produktuak kontsumitzea sustatu zen.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraiki, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak euskarri ezberdinetako kultura-produktuen erosketa diruz lagundu zuen, kultura-bonu batzuen bidez. Bonu horiek lehiaketa bidez hautatua izan zen finantza-entitatearen bidez jarri ziren salmentan, eta berorien bidez, erabiltzaileak bere diruaren balioa handitu ahal izan zuen, bai liburuak edo diskoak erosteko, bai museo batera, zinera, antzerkira edo kontzertu batera joateko.

Hirugarrena.– Kanpaina horrek arrakasta handia izan zuenez, aurten ere beste kanpaina bat egitea komeni da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– 2010-2011 Gabon-kanpainan zehar kultura-bonuen beste kanpaina bat egite aldera, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak 2010eko urriaren 6an hartutako ebazpenaren bidez, deialdi publiko baten oinarriak onartu ziren, hain zuzen ere, finantza-entitate bat hautatzeko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin elkarlanean –musutruk eta modu esklusiboan– Kultura Bonuen Programa garatu eta kudeatzeko, eta horren bidez, Eusko Jaurlaritzak finantziazioz kultur- ondasunak eta -produktuak erosi ahal izateko.

Bigarrena.– 2010eko urriaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, lehiaketa publiko baten iragarkia argitaratu zen, 2010-2011 Gabon-kanpainan zehar, Kultura Bonuen Programan Eusko Jaurlaritzaren kolaboratzaile esklusibo moduan parte hartuko zuen finantza-entitatea hautatzeko. Bilbao

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

355

ORDEN de 22 de diciembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se amplia el número de Bonos Cultura puestos a la venta en la campaña de Navidad 2010-2011.

ANTECEDENTES

Primero.– Dentro del proyecto del Gobierno Vasco de impulsar el desarrollo de acciones diversas encaminadas a la reactivación económica de Euskadi, se puso en marcha en el año 2009 una iniciativa orientada a la dinamización del mercado de la producción artística y cultural a través de la incentivación del consumo de productos culturales en nuestra Comunidad Autónoma durante la campaña navideña 2009-2010.

Segundo.– En virtud de lo anterior, el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco subvencionó la compra de productos culturales en sus múltiples soportes, mediante la adquisición de unos «Bonos Cultura» puestos a la venta a través de la entidad financiera que resultó seleccionada mediante concurso, con los que el usuario o usuaria pudo incrementar su dinero para adquirir tanto libros o discos, como entradas para visitar un museo, asistir al cine o al teatro o acudir a un concierto.

Tercero.– El éxito que tuvo dicha campaña ha hecho conveniente realizar una nueva en el presente año.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– A efectos de realizar el presente año una nueva campaña del «Bono Cultura» durante la campaña navideña 2010-2011, se dictó la Resolución de 6 de octubre de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se aprobaron las Bases de una convocatoria pública para la selección con carácter gratuito y en régimen de exclusividad de una entidad financiera que colaborara con el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco en el desarrollo y gestión del Programa Bono Cultura destinado a posibilitar la adquisición financiada por el Gobierno Vasco de bienes y productos culturales.

Segundo.– Con fecha 21 de octubre de 2010 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco el anuncio del concurso público para la selección de entidad financiera que participe como colaboradora en exclusiva del Gobierno Vasco en el programa «Bono Cultura», durante la campaña navideña 2010-2011,

Bizkaia Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa eta Caja Vital Kutxak osatutako Aldi Baterako Enpresen Elkartea (ABEE) izan zen hautatutako entitatea.

Hirugarrena.– Lege eta zerga alorreko obligazioak betetzen zirela egiaztatu ondoren, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2010eko azaroaren 15eko Ebazpenaren bidez, ABEE - Bilbao Bizkaia Kutxa-Gipuzkoa Donostia Kutxa-Caja Vital Kutxa entitatea hautatu zen 2010-2011 Gabon-kanpainako Kultura Bonuen Programa kudeatu eta garatzeko kolaboratzaile esklusibo gisa.

Laugarrena.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko otsailaren 14ko 30/2007 Legearen 4.1.d artikuluan ezarritako bideari jarraiki, 2010eko abenduaren 13an hitzarmena izenpetu zen ABEE horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta ABEE horren arteko lankidetzarako oinarriak antolatu eta ezartzeko. Lankidetza hori, hain zuzen ere, 2010-2011 Gabon-kanpainan zehar Kultura Bonuen Programa garatu, kudeatu eta bultzatzeko zen.

Bosgarrena.– Hitzarmen horren zazpigarren klausulak honela dio:

«Zazpigarrena.– Eusko Jaurlaritzak ez du bere gain hartuko 52.000tik gorako kultura-bonuen salmenta, non eta aurrez idatziz jasoko den erabakiaren bidez, bono gehiagoren salmenta baimentzen ez den. Nolanahi ere, zenbateko hori zehaztu egin behar da».

Seigarrena.– 2010-2011 Gabon-kanpainak aurreko urtekoak baino zenbateko txikiagoa du, ekimen ezberdinei aurten aplikatu behar izan zaizkien aurrekontu-murrizketak direla-eta.

Hala eta guztiz ere, Araba eta Bizkaian eskaera horren handia izan denez, kultura-bonuak aurreikusitakoa baino lehenago agortu dira, eta momentu honetan badago aurrekontua. Horregatik, komenigarria da salmentan jarritako kultura-bonuen kopurua handitzea.

Horregatik guztiagatik, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– 2010-2011 Gabon-kanpainan zehar Kultura Bonuen Programa garatzeko, kudeatzeko eta bultzatzeko hautatua izan den entitate kolaboratzaileari, alegia, ABEE - Bilbao Bizkaia Kutxa-Gipuzkoa Donostia Kutxa-Caja Vital Kutxa entitateari, baimena ematea 7.000 kultura-bonu gehiago saltzeko. Bonu horiek lehendik baimendutako 52.000 kultura-bonuei gehituko zaizkie. Zenbatekoa, guztira, 105.000 eurokoa izango da, honela banatuta:

3.000 bonu Caja Vital Kutxan saltzeko.

4.000 bonu BBKren bidez saltzeko.

resultando seleccionada la UTE constituida por Bilbao Bizkaia Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa y Caja Vital Kutxa.

Tercero.– Que tras la acreditación del pleno cumplimiento de sus obligaciones legales y tributarias, por Resolución de 15 de noviembre de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, se seleccionó a la entidad UTE - Bilbao Bizkaia Kutxa-Gipuzkoa Donostia Kutxa-Caja Vital Kutxa como colaboradora en exclusiva en la gestión y desarrollo del programa Bono Cultura durante la campaña navideña 2010-2011.

Cuarto.– Que conforme al cauce previsto en el artículo 4.1.d de la Ley 30/2007, de 14 de febrero, de Contratos del Sector Público, con fecha 13 de diciembre de 2010, se firmó el correspondiente convenio con dicha UTE, con el fin de articular y sentar las bases de Colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y dicha UTE para el desarrollo, gestión y fomento del programa «Bono Cultura» durante la campaña navideña 2010-2011.

Quinto.– En dicho Convenio, en su cláusula séptima, se recoge:

«Séptima.– El Gobierno Vasco no se hará cargo de la venta de bonos en número superior a los 52.000 Bonos Cultura, excepto que previo acuerdo por escrito se autorice la venta de un mayor número de bonos que, en todo caso, deberá ser concreto».

Sexto.– Esta campaña, que se está celebrando en esta Navidad de 2010-2011, tiene una cuantía menor que la celebrada el año pasado, debido a las restricciones presupuestarias que ha habido que aplicar en el presente año a las distintas iniciativas.

No obstante, debido a que la demanda ha sido tan importante en Álava y Bizkaia que los «Bonos Cultura» se han agotado con mayor rapidez de la prevista, y que hay disponibilidad presupuestaria en estos momentos, se considera conveniente ampliar el número de bonos cultura puestos a la venta.

Por todo ello,

RESUELVO:

Artículo único.– Autorizar la venta de 7.000 «Bonos Cultura», a sumar a los 52.000 bonos autorizados, a la entidad financiera colaboradora seleccionada para el desarrollo, gestión y fomento del programa «Bono Cultura» durante la campaña navideña 2010-2011, UTE - Bilbao Bizkaia Kutxa-Gipuzkoa Donostia Kutxa-Caja Vital Kutxa, por un importe total de 105.000 euros, los cuales se distribuirán de la siguiente manera:

3.000 bonos para la venta en Caja Vital Kutxa.

4.000 bonos para la venta a través de BBK.

AZKEN XEDAPENA

Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Kulturako sailburuari, hilabeteko epean; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera (lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen).

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 22a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente convocatoria se podrá interponer, con carácter potestativo, un recurso de reposición ante esta misma Consejera de Cultura, en el plazo de un mes o, un recurso contencioso-administrativo ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de diciembre de 2010.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.